ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko urtarrilaren 24a, ostirala • 9 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# UNTZA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2019ko bigarren seihilekoko ordainagiriak**

Egin delarik Untza-Apregindanan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren 2019ko bigarren seihilekoko tasaren errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Espedientea Arabako Untza-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango da.

Zergadun errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorriz Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 9. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena dela, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko otsailaren 1ean hasi eta martxoaren 1ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2020ko martxoaren 1ean kobratuko zaie.

Untza-Apregindanako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua aplikatuta, bat etorriz Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Untza, 2020ko urtarrilaren 16a

*Lehendakaria*
*JOSÉ CARLOS MARÍN CORRES*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.01.24 06:32:46 Z